

Alfredo Cobo ••• Soin Hezkuntzako irakaslea

«Soin hezkuntza ez da kirola egitea bakarrik, beste hainbat gorputz adierazpen ere lantzen dira»

Alfredo Cobo 32 urteko eibartarra da. Duela 8 urte ateratu zuen lizentziatura, Soin Hezkuntzako hirugarren promozioan. Ikasketak amaitu eta lanean hasi zen: Eibarko kiroldegian lehenik, ordezkapenak egiten gero, Debako kiroldegian ere 5 urtez aritu zen eskola kirolaren arduradun eta udako kanpainen antolatzaile. Egun, Eibarko La Salle ikastetxean ari da, Soin Hezkuntzako irakaslea.

• Zerk eraman zintuen Soin Hezkuntzako ikasketak aukeratzera?

Egia esan, garai hartan ez nuen lizentziatura ezagutzen. Ni Ingeniaritza egitekotan nengoan, baina kirola oso gustuko nuen, eta ikastetxean Soin Hezkuntza ikastera zihoan mutil bat ezagutu nuen. Gustukoa iruditu zitzaidan, eta biok elkarrekin aurkeztu ginen fakultatean saritzeko ekaineko proba fisikoetara, baina ez genituen gainditu. Orduan, hurrengo urteko frogetara aurkezteko gogoia etorri zitzaigun. Urte osoa kirola eginez pasatu genuen, eta EGA ateratzeko AEKn izena eman genuen. Etxean asko borrokatu nuen; gurasoek ingeniaritza ikasiko nuela espero zuten, eta


urtebete kirola eginez pasatuko nuela ulertaraztea ez zen batere erraza izan.

• Zer nolakoak iruditu zitzaizkizun ikasketak?

Gu 3. promozioa izan ginen, eta nora nindoan jakin gabe sartu nintzen: kirola gustuko nuelako. Lehenengo hiru urteak oso ongi pasatu nituen, oso harreman polita genuen gure urteko zein hurrengo urteko jendearekin. Guk ikasi genuen, berria zen lizentziatura eta zenbait arazo izan genituen, materia ez zegoen behar bezala finkatuta eta zenbait irakasle ez zeuden behar bezala prestatuta... Baina egun gauzak aldatu direla pentsatzen dut. Nire promozioa bi pertsonak gutxienez bertan eskolak ematen dituztela.

• Dagokion garrantzia ematen zaio Soin Hezkuntzari?

Egia esan, bizitza guztian entzun dut gimnasiako monito-



EGUNKARIA

rea naizela. «Lizentziatua zertan?», galdetzen didate, eta baita adarra jo ere. Betidanik hezkuntza sisteman beste motatako ikasgaiak landu dira eta oro har, Musikak, Arteak edo Soin Hezkuntzak nahiko garrantzi gutxi dute. Ez diot garrantzirik ez dutenik, baina bestelako ikasgaiak ere garrantzia gehiago eman behar zaiela uste

dut. Soin Hezkuntzaren bitartez giza harremanak, osasuna, norbere burua hobeto ezagutzea... lantzen da, eta hori oso garrantzitsua da gizarte harremanetarako eta batez ere nerabeentzako. Soin Hezkuntza ez da kirola bakarrik, erritmoa lantzea, koordinazioa, oreka, gorputz adierazpena... lantzen dira. Jokoaren bitartez umeak ezagutzen dira. Soin Hezkuntzari ez zaio garrantzi handirik ematen; nik, adibidez, bi ordu ematen ditut astean, eta beste ikasgaiekin alderatuta hori oso gutxi da, baina gero, selektibitateko notaren batez bestekoa egiterakoan, Soin Hezkuntzako nota ere kontuan hartzen da.

• Beraz, gimnasiako irakasleak zarete?

Kanpoko jendearentzat bai. Ni aurtien teoria ematen ere hasi naiz: elikadura, higiena, beroketa ariketak nola egin... teoria

praktikoa da. Gurasoak eta lagunak ere harrituta daude: «Hor egon da nire semea, gimnasiako azterketarako ikasten», esan zidan guraso batek, bitxikeria batez ariko balitz bezala. Jendeak ez du planteatzeko Soin Hezkuntzak ere edukiteorikoa izan dezakeenik.

• Hezkuntza sistemaren aldataketak eraginik izan du Soin Hezkuntzako irakasleengan?

Nahiz eta sistema aldatu, gure ikasgaiak bigarren mailakoa izaten jarraitzen du. Orain hezkuntzak urteroko plangintzak ezartzen ditu eta unitate didaktikoak ditugu lantzeko. Baina helburuak landu eta lortzeko dauden arazoek lehengoan dira. Oso ordu gutxi ematen ditugu eta kasu askotan, leku egokien falta dago. Ikasliburuak ere gehienak gaztelaniaz daude oraindik, gutxi batzuk badaude euskaraz. Eskolak emateko euskarazko apunteak baliatzen gara edo gaztelaniazkoak itzuli behar ditugu.

• Zer esango zenioke Soin Hezkuntza ikasi nahi duenari?

Aurrera jotzeko, oso polita dela. Ni irakaslea naiz, baina beste irtenbide asko daude, kiroldegietan, patronatuetan, kudeaketa munduan, eta baita eliteko kirolean ere. Gaur egun, naturarekin erlasionatutako jarduerak antolatzen dituzten enpresa asko daude, eta hori ere irtenbide polita da.

HEZKUNTZA ESKAINTZA

DBH: A, B eta D hezkuntza-eremuak. Aukerako gaiak: Informatika, Frantsesa, Kultura klasikoa, ikasketak teknikak...

BATXILERGOA: A eta D eremuak.
• Natur eta osasun zientzietako batxilergoa:
- Zientzien eta teknologiararen batxilergoa.
- Natur eta osasun zientzietako batxilergoa.
• Giza eta gizarte zientzietako batxilergoa:
- Giza-zientzien batxilergoa
- Gizarte-zientzietako batxilergoa

Gure batxilergoetatik unibertsitateko aukera guztietara joan ahal da.

Aukerako gaiak. Informatika, laborategi-teknikak, psikologia, zuzenbidea, ordenagailuak lagundutako diseinua...

Gure hezkuntzerikiko ekarpena saritua izan zen 1999-2000 ikasturtean, DEla egunkariak bere "idazle gazteak" atalean bultzatutako lehiaketan lehenengo saria lortzean.



INSTITUTO DE ENSEÑANZA SECUNDARIA REKALDEBERRI

BIGARRREN HEZKUNTZA INSTITUTUA
Carrera de Lurrazkila 56 - 48002 Bihao
Tel.: 94 421 52 43 Fax: 94 422 04 13
e-mail: 014191aa@hezkuntza.net
http://www.euskalnet/rekaldeberri/index.html

"URRITXE-ZORNOTZA"

Bigarren Hezkuntzako Institutua

- ✓ D.B.H.
- ✓ Batxilergoak (Hiru modalitateak)
- ✓ Heziketa Zikloak

Erdi mailakoak

- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Merkataritza
- Elektromekanika

Goi mailakoak

- Aplikazio informatikoen garapena
- Nazio arteko merkataritza
- Ekipo industrialen mantendua

Informatikako gelak, laboratorioak, liburategia, tailerrak, kirol instalazioak... Jantokia eta eskola-garraioa dardazkagu ere.

Urritxe auzunea, z/g 48340 AMOREBIETA (Bizkaia)

Tel.: 94 673 02 51 / 20 12 Faxa: 94 673 02 51

www.educanet.net/zornotza • e-mail: info@urritxe.educanet.net



Barrutialde INSTITUTUA

Barrutia auzoa z/g • ARRATZU (Bizkaia) • Tel.: 94 625 11 43
e-mail: barrutialde@jet.es

BATXILERGOAK

- Teknologia.
- A eta D ereduak
- Natur eta Osasun Zientziak.
- D ereduak

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Mekanizazioa.
- D ereduak.
- Arozgintza eta neurria egindako Altzarigintza.
- D ereduak.


GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Mekanizazio bidezko Produktzioa.
- A ereduak.
- Elektroteknika Instalakuntzak.
- D ereduak.

AURREMATRIKULA:

Maiatzaren 2tik 11ra
Eskola garraioa subentzionaturik.

GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO BERARIAZKO INSTITUTUA



HARREMAN
PERTSONALEN
%50a EUSKARAZ
IZATEN DIRA

HSAL BATXILERGOAK	ERDI-MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK	GOI-MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK
• Batxilergo Teknologikoa • Osasun eta Natur Zientzien Batxilergoa • A eta D ereduak	• Soldadura eta Galdaragintza (A eta D) • Laborategia • Karrozeria • Ibilgailuen Elektromekanika • Hotz klimatizazio eta bero ekoizpen instalazioen muntai eta mantentimendua	• Automozioa • Analisi eta Kontrola • Produktu Elektronikoen garapena • Ekipo Industrialeko mantentimendua • Metal eraikitzaileak • Prozesu eta eraikin instalazioetako muntai eta mantentimendua

San Markoserako errepidea, z/g
Tfnoa. 943-51.04.50 / 4 / 8
Web Site: http://www.donbosco.hezitek.net

Apdo. 101 - 20100 ERRETERIA
Faxa. 943-52.92.20
E-mail: iefps@donbosco.hezitek.net

- LANGAirekin lan egiten duen Zentroa
- LAN SAILAREN Zentroa tutelatua
- LANERAKO FORMAKUNTZAren emaila
- JARRAIEKO FORMAKUNTZAren emaila (HOBETUZ)
- AUTODESKeko ATC (Training Center)